

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**434/2026 Foru Agindua, irailaren 8koa. Epe berria irekitzea Arabako Foru Aldundiaren 2024ko, 2025eko eta 2026ko enplegu publikoaren eskaintzako lanpostu honetan karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuan izena emateko: administrazio bereziaren eskalako, zerbitzu berezien azpieskalako, egiteko berezien klaseko, zerga ikuskatzaile laguntzailea, A1 sailkapen azpitaldekoa**

Foru Gobernuaren Kontseiluaren abenduaren 23ko 774/2024 Erabakiaren bidez Arabako Foru Aldundiaren 2024ko enplegu publikoaren eskaintza onetsi zen. Bertan, besteak beste, bi plaza zeuden lanpostu honetan: Administrazio Bereziaren eskalako, Zerbitzu Berezien azpieskalako, Egiteko Berezien klaseko, zerga ikuskatzaile laguntzailea, A1 sailkapen azpitaldekoa. Erabaki hori apirilaren 15eko 204/2025 Erabakiak aldatu zuen.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 16ko 761/2025 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren 2025erako enplegu publikoaren eskaintza onetsi zen, eta, besteak beste, eskala, azpieskala, klase eta azpitalde bereko plaza bat gehitu zen.

Maiatzaren 4ko 233/2026 Foru Aginduaren bidez, 2024 eta 2025eko enplegu publikoren eskaintzei dagozkien zerga ikuskatzaile laguntzaileen plazak betetzeko deialdia onetsi zen. Guztira, 3 plaza, derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna duen lanpostu bat txanda irekian, eta 2 plaza barne sustapeneko sistemaren bidez, derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizunarekin. Eskaerak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 10etik 2026ko uztailaren 7ra bitartean egon zen zabalik.

Ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 19ko 287/2026 Erabakiaren bidez, 2026ko lehen enplegu publikoaren eskaintza onetsi zen. Bertan, zerga ikuskatzaile laguntzaileen 5 plaza gehiago eskaini ziren, honela banatuta: 3 plaza txanda irekian, plaza bat txanda irekian desgaituentzat gordetako kupoaren bidez, eta plaza bat barne sustapeneko sistemaren bidez.

Uztailaren 6ko 342/2026 Foru Aginduaren bidez, 233/2026 Foru Agindua aldatu zen, besteak beste, 2026ko lehen EPEri dagozkion zerga ikuskatzaile laguntzaileen 5 plazak hasierako deialdian sartzeko. Uztailaren 6ko 342/2026 Foru Agindu hori argitaratu zen eskaerak aurkezteko epea (2026ko uztailaren 7rako finkatua) ixteko egun baliodun bakarria falta zenean. Ondoren, aldatzeko foru-agindua 2026ko uztailaren 22ko ALHAOn argitaratu zen, 83. zenbakian. Denbora tarte labur horrek zaildu egin zuen interesa izan zezaketen pertsonen deitutako plaza kopuru berriaren eta desgaituentzat gordetako kupo gehitu izanaren berri izatea eta, ondorioz, hautaketa prozesuan parte hartzea baloratzea. Horregatik, bidezkoa da eskabideak aurkezteko epe berria ezartzea.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Epe berria irekitzea parte hartzeko eskabideak aurkezteko, hogei egun baliodunekoa, ebazpen hau EAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hautaketa prozesuan parte hartzeko, Administrazio Bereziaren eskalan, Zerbitzu Berezien azpieskalan, Egiteko Berezien klasean, zerga ikuskatzaile laguntzaile lanpostuan, A1 azpitaldean karrerako funtzionario gisa sartzeko, 2024, 2025 eta 2026ko enplegu publikoaren eskaintzen ondoriozko zortzi plazei dagokienez.

Bigarrena. Hasierako epean eskabidea behar bezala egin zuten izangaien eskariek indarrean jarraituko dute, izapide gehigarriak egin beharrik gabe, eta automatikoki parte hartuko dute hautaketa prozesuan.

Hirugarrena. Eskaera balioduna aurkeztu eta aukeratutako izena emateko txanda aldatu nahi dutenek (desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txandan edo barne sustapeneko sistemaren bidez lehiatzeko aukera hautatzea nahiago dutelako), eskabideak aurkezteko epe berrian aldatzeko eskaera aurkezteko aukera izango dute.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 8a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,  
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR